

KOLDO MITXELENA KATEDRAREN III. BILTZARRA  
III CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA  
3<sup>rd</sup> CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR



Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui,  
Joseba A. Lakarra & Céline Mounole  
(arg./eds.)

eman la zabalaz



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

2013

Vitoria-Gasteiz

CIP. Biblioteca Universitaria

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena. Congreso (3.º 2012. Vitoria-Gasteiz)**

Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra = III Congreso de la Cátedra Luis Michelena = 3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Ricardo Gómez ... [et al.](eds. = arg.). – Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2013. – XXII, 770 p. : il., map. ; 24 cm. – (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 5)

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-1849-2013. – ISBN: 978-84-9860-911-0

1. Euskara (Lengua) – Congresos. 2. Michelena, Luis, 1915-1987. I. Gómez, Ricardo, ed. lit.

811.361(063)

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da /

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación /

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (HLMV-LHC) (Eusko Jaur-larritza, GIC. IT698-13),
- “Monumenta Linguae Vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo” (Espainiako MINECO, FFI2012-37696),
- “Onomástica aquitana e ibérica: datos y evaluación lingüística” (Espainiako MINECO, FFI2012-36069-C03-01),
- “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropar-  
rak eta Euskara” (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburu ezein modutan transmitit-  
tzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo bes-  
te edozein erataraz, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako  
baimena aurretik eta idatziz eman.

© Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg./eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-911-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 1.849-2013

# **Euskal azentueren historiaz\***

Ander Egurtzegi eta Gorka Elordieta  
UPV/EHU

## **0. Sarrera**

Lan honen bidez, gaur egungo euskaraz aurki daitezkeen hiru azentuera mota nagusien berri ematen duen hurrenkera historiko bat aurkeztu nahi da. Honekin batera, hurrenkera hau ebidentzia fonetiko, geografiko eta histori-koz hornitzea dugu helburu. Euskalki modernoetan hiru azentuera mota nagusi daude, egun dagoen sailkapen berriena eta sakonena jarraituz, Hualde-rena (1997a), hain zuzen: ekialdekoa, erdialdekoa eta Bizkaiko iparraldekoa. Ekialdean, azentua oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da eredu mar- katugabe edo arruntean, oinarria hitza edo erroa delarik. Erdialdean, hitzaren bigarren silaban jartzen da azentua, hitz markatuetan izan ezik (i.e., eredu arrunta edo orokorra jarraitzen ez dutenak, lexikoki horrela markatuta dau- denak). Bizkaiko iparraldean, azentua ez da hitz guztien marka bat. Azentua sintagmaren azken silaban ezartzen da, hitzak azentuaren aldetik markatuak ez badira. Hitzak azentuaren aldetik markatuak baldin badira, azken silaba baino arinago ezartzen da azentua.

Euskalkien azentu eredu hauen xehetasunak hurrengo atalean emango di- tugun arren, argi dago edozein interesaturentzat euskalkien azentu ereduen arteko kronologia erlatiboa ikertu behar dela, hots, zein den sistematik zahar- rrena, eta nola eta zergatik banandu ziren azentu ereduak. Izan dira proposa- menak honetaz, Martinetenak (1955), Mitxelenarenak (1958, 1972, 1977) eta Hualderenak (1995, 2003, 2007) hain zuzen, baina Elordietak (2011) eraku- tsi zuenez, proposatutako ereduak ezin dira aplikatu aitzineuskararen garaira, beranduagoko garaietara baizik (Martineten analisia baztertu beharra dago,

---

<sup>1</sup> Esker ona zabaldu nahi diegu lan hau burutzeko diru-laguntza eskaini duten erakundeei: Eusko Jaurlaritza (IT769-13 eta IT698-13 ikerketa talde kontsolidatuak, BFI 2010-385 iker- tzaileen prestakuntza programarekin batera), UPV/EHU (PIU11/14), Espainiako MINECO (CSD2007-00012, FFI2012-38064-C02-01 eta FFI2012-37696 ikerketa proiektuak), eta Estatu Batuetako National Science Foundation (BCS-1 147083 ikerketa proiektua).

Martínez-Aretak 2004 argudiatu zuen bezala; ikus Elordietak 2011 ere). Elordietak (2011) euskal azentueraren bilakaeraren hipotesia proposatu zuen, aitzineuskaratik hasita, eta euskalkien arteko banaketak eta kronologia erlatiboak iradoki zituen. Gure lan honetan Elordietaren (2011) analisia berrikusi egiten dugu partzialki, ekialdeko eta erdialdeko ereduen arteko bilakaera aldatuz, Egurtzegiren (2013a) oharpen zenbaiti jarraikiz. Tartean, hego-mendebaldeko nafarrerako azentu eredua ere kokatuko dugu bilakaeran, Hualderen (2007, 2012) argudioa aintzat hartuz.

## 1. Gaur egungo euskal azentuerak

Hasteko, euskarazko hiru azentuera mota nagusiak deskribatuko ditugu, jarraian zerrendatzen direnak hurrenez hurren. Funtsean, sailkapen hau Hualdek (1997a) aurkeztutakoa da, Mitxelenaren (1958) sailkapena berrikusten duena. Goian aipatu bezala, azentuera mota bakoitzean hainbat azpi-mota daude, eta hauekin batera tarteko motak ere badaude (Hualde 1997a, 1999; ikus baita ere Gaminde eta Hualde 1995 eta Gaminde 1998a).

1. azentuera mota: Ekialdeko azentuera (§ 1.1)
2. azentuera mota: Erdialdeko azentuera (§ 1.2)
3. azentuera mota: Bizkaiko iparraldeko azentuera (§ 1.3)

### 1.1. Ekialdeko azentuera

Azentuera mota honek azentu markatugabea oinarriaren azkenaurreko silaban darama. Oinarria hitza da zubereraz, eta erroa erronkarieraz. Beraz, zubereraz oro har azentua hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen da. Kokapen hau horren orokorra da non noizbait hitz guztiek azentua silaba horretan izan zezaketela proposa daitekeen. Honen adibide dira *gizun*, *gizúna*, *neska* edo *alhába* bezalakoak. Hala eta guztiz ere, badira azentuera mota honetan zenbait hitz markatu. Hitz markatu hauek azken silaban daukate azentua. Kasu berezi hauek azken silabako diptongoen sorreraren edo bi bokalen bat egitearen ondorio izaten dira. *Ardũ*, *ardãu* (< \*ardano) eta *ahãi* (< *ahãri*) lehenengo kasuaren adibide dira eta *alhabá* (< *alhabá-a*), *neská* (< *neská-a*) edo *orgã* (< \*organa) bezalakoak bigarrenarenak.

Lehen azentuera mota hau zubereraz, erronkarieran eta zaraitzueran aurkitzen da batez ere, baina baita Erro eta Esteribar haranetan, Luzaiden, Baztanen eta Ultzaman (cf. Hualde 1997a). Hala ere, guzti hauen artean badira desberdintasunak azentuaren oinarriari dagokionez, honakoa hitzean zein erroan ezar daitekeela. Edonola ere, funtsean, oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da azentua.

## 1.2. Erdialde-mendebaldeko azentuera

Azentuera mota honetan azentua hitzaren bigarren silaban kokatzen da orokorrean. Hala ere, azentuera hau daukaten azpi-mota zenbaitetan, bokalez bukatzen diren hitz bisilabadunetan azentua hitzaren lehen silaban doa sistematikoki. Honen adibide dira *emákumea*, *gizóna*, *mutílla* baina *néska*, *óna* edo *bíde*. Hauekin batera, hasierako azentua duten lexikoki markaturiko hitzak daude, mailegu eta konposatuak direnak gehienbat. Hauen artean daude *básoa* (< Sp. *vaso* ‘edalontzi’, cf. *basóa* ‘oihan’), *léngusua*, *béstea* eta *égia*.

Azkenik, zenbait atzizki markatuek ere eragin dezakete azentuera aldaketa. Hurrengo adibideak Beasaingo hizkeratik hartuak dira:

(1) zakúrre	zákurrek
gizóna	gizonai
mendítik	méndititik
polítte	pólittegie
azkárra	ázkarrena
txerrie	txérrikie
etórrri	étortzen

Deskribatu berri dugun bigarren azentuera mota zabalduena da: Gipuzkoa gehienez, Bizkaiko hego-ekialdean eta Nafarroako mendebaldean aurki daiteke gaur egun. Halaber, bigarren silabako azentuera mota hau euskalki guztien azentuera komuna izan zela proposatu da maiz, Mitxelenaren (1977: 405-410) lanaren ondorioz.

## 1.3. Bizkaiko iparraldeko azentuera

Doinu-azentuan oinarritua dagoen hirugarren azentuera mota honetan azentua morfologikoki zehazten da, hitz azentudun eta azentugabeen artean ezberdintasun lexiko bat dagoelarik. Ia euskal hitz guztiak azentugabeak dira eta, azentu gabeko morfemekin konbinatzen direnean, azentua amaieran agertzen da hauek aditzaren aurrean edo isolaturik ebakitzen direnean. Aditzaren aurrean ez daudenean, ordea, hitz hauek ez dute azenturik.

- (2) laguná etorri da  
laguna berandú etorri da


Hitz azentudunek morfema azentudun bat edo gehiago dituzte, honakoa erroetan zein hizkietan egon daitekeelarik. Euskal hitz eta hizki singular gehienak azentugabeak diren bitartean, hitz mailegatu, konposatu eta hizki pluralak azentudunak izaten dira. Azentua lexikoki azentuduna den morfemaren aurreko silaban kokatzen da hizkera gehienetan (Getxotik Gernikarainoko azpi-motan, (3) adibidean erakusten den bezala, cf. Hualde 1989, 1993, 1997a, 2003), eta hitzaren azkenarreko edo azken-hirugarreneko silaban

hizkera gutxi batzuetan (Lekeitio-Ondarroa-Markina azpimotan, cf. Hualde 1989, 1993, 1997a, 2000, 2003):

- (3) a. **laguná** etorri da.  
 b. **lagúnak** etorri dira(s). [lagun]-[‘ak] > lagú.nak  
 c. **kalián** ikusi dot.  
 d. **kalietan** ikusi doras. [kale]-[‘eta-n] > kalí.e.tan

Esan bezala, euskal hitz gehienak azentugabeak dira, baina badaude azentudunak direnak ere, batez ere konposatuaren artean: *béste*, *bélarri*, *éurre*, *átze* edota *egúski* kasu. Hauekin batera maileguak ere azentudunak izaten dira: *léku*, *ganbára*, *kipúla*, *libúru/libru*, *aiskóra*, etab.

Azentua H\*+L beheranzko tonu kontorno bezala gauzatzen da silaba azentudunean. Beste euskal eredu prosodikoetan ez bezala, hitz bakoitzak ez du azentu bat izan behar. Aditzaren aurrean agertzen ez den hitz azentugabe batek ez du prominentzia prosodikorik (hots, azenturik) erakusten, eta hurrengo hitzarekin batera sintagma prosodiko batean sartzen da. Hitz azentudunen eta azentugabeen arteko desberdintasun prosodikoak hurrengo irudian ikus daitezke, hiztun lekeitiar baten ahoskapena islatzen dutelarik:



### 1. irudia

Lehen irudiko bi esaldiak berdinak dira segmentalki. Desberdintasun bakarra lehen hitza azentugabe edo azentuduna izatean datza. Lehen esaldian, genitibo singularreko *lagunen* hitza lexikoki azentugabea da, eta ez du azenturik aditzaren aurre-aurrean ez doalako. Bigarren esaldian, aldiz, genitibo pluralezko *lagúnen* hitza azentuduna da, eta azentu hau azkenaurreko tonu beherakadak erakusten du. *Amúma* hitza azentuduna da lexikoki, eta tonu beherakada du azkenaurreko silaban esaldi bietan. Lehen esaldiko hitzen artean ez dago muga prosodikorik, hau da, lehen hitzean ez dagoenez azenturik, bi hitzak talde prosodiko berebean ahoskatzen dira.

Azentuaz aparte, talde prosodikoek badute beste ezaugarri garrantzitsu bat: taldearen lehen silabak beheko tonua du, eta bigarren silaban tonu igoera

dago. Behin tonua igota, goiko tonua mantendu egiten da azenturaino, non tonua jaisten den. Goiko irudian lehen esaldiko *lagunen* hitzean talde hasierako gorakada eta goiko tonuzko lautada ikus daitezke.

Talde prosodiko hauen deskribapenak eta analisi fonetiko-fonologikoak hurrengo lanetan aurki daitezke, hainbat adibiderekkin: Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994; Elordieta 1997, 1998, 2003, 2007a, 2007b, 2007c; Jun eta Elordieta 1997; Hualde *et al.* 2002; Gussenhoven 2004; Selkirk eta Elordieta 2010; eta Elordieta eta Hualde agertzeke, besteak beste. Intonazioaren analisisirako estandarra den Teoria Metriko-Autosegmentala jarraituz, talde prosodikoko hasierako beheko tonua %L ikurrarekin markatzen dugu, eta azentuaren tonu beherakada H\*+L ikurrarekin:

$$(4) \text{ a. } \begin{array}{c} \underline{la/gunen} \text{ (sg.) } \underline{amu} \underline{ma} \text{ ikusi } \underline{dot} \\ | \quad | \quad \quad | \\ \%L \quad H \quad \quad H^*+L \end{array} \quad \text{ b. } \begin{array}{c} \underline{la/gu} \underline{nen} \text{ (pl.) } \underline{a/mu} \underline{ma} \text{ ikusi } \underline{dot} \\ | \quad | \quad \quad | \quad | \\ \%L \quad H^*+L \quad \%L \quad H^*+L \end{array}$$

(3)ko adibideetan, lexikoki azentugabeak diren hitzak (3a, 3c) aditzen aurrean daude, eta aditzaren aurrean egoteagatik, hain zuzen, azentua azken silaban jasotzen dute. Lehen silabatik bigarrenera tonu gorakada bat dago. Intonazionalki, adibide horiek honela azalduko genituzke:

$$(5) \begin{array}{c} \underline{la/guna} \underline{etorri} \underline{da} \\ | \quad | \quad | \\ \%L \quad H \quad H^*+L \end{array} \quad \begin{array}{c} \underline{ka/lian} \underline{ikusi} \underline{dot} \\ | \quad | \quad | \\ \%L \quad H \quad H^*+L \end{array}$$

## 2. Azentuera zaharra: proposamenak

Berreraiki dezakegun azentuera zaharrenari dagokionean, hiru hipotesi nagusi aurkeztu izan dira. Lehendabizikoak, Martinetenak (1955, 1981) alegia, azentu demarkatiboa hitzaren hasieran [σ σ] berreraikitzen zuen. Mitxelenak (1958, 1972, 1977) proposatutako hipotesiak, ordea, bigarren silaban [σ σ] kokatzen zuen azentua. Azkenik, Hualdek (1995) gaur egun Bizkaiko iparraldeko azentueran gordetzen den sintagma mailako azentua [σ σ] [σ σ] proposatu zuen. Honakoan, aurretik proposatu izan diren hipotesiak berrikusiko ditugu, haien kronologia posibleak aztertuz, eta proposamen osoago batera heltzeko saiakera bideratuko dugu.

### 2.1. Martinet (1955, 1981)

Martinetek (1955, 1981) bi herskari ahoskabe daudenean, lehenak modu sistematikoan hasperenketa hartzen duela ikusi zuen *phika* edota *phinta-koste* bezalako adibideetan, eta honakoa azentuaren kokapenarekin lotu zuen.

Modu berean, *fortis* eta *lenis* kontsonanteen distribuzioarekin ere lotu zuen, bere hipotesiaren arabera *fortis*-ak hitz hasieran agertzen baitziren, azentuak egon behar zuen toki berean, hain zuzen ere.

Lan honetan, hasiera batetik baztertu dugu Martineten hipotesia, lehen-dabiziko silabako azentuera proposatzeko ebidentzia nahikorik ez delako, eta dituen arazo kantitate handia medio. Ez da argi geratzen azentuera orokorra inoiz lehen silaban izan bazen, nola desberdinu zitezkeen hitz markatu eta ez-markatuak (ikus Martinez-Areta 2004). Elordietak (2011) idatzitakoa ekarriko dugu hona. Euskararen azentu eredu askotan badira hitz markatuak azentuaren aldetik, azentuera bereziak hartzen dituztenak, arau orokorra jarraitu beharrean beste patroï bat dutenak. Hitz markatuak dituzten hizkera guztietan, mailegu gehienak hitz markatuak dira —salbu jatorriz hitz oxitonoak direnak, Bizkaiko iparraldean—. Martinetek asumitzen duen garairako latinarekin harreman linguistikoa zegoen, eta mailegu zaharrenak garai honetakoak izango lirarteke (*kipula*, *leku*, *liburu*, *denbora* bezalako hitzak). Mailegu zahar hauek markatuak dira erro markatuak dituzten hizkera guztietan. Gaur egun, erro markatuak dituzten hizkera guztietan, erro markatuek gutxieenez hitz ez-markatuek baino silaba bat ezkerralderago daramate azentua (ikus Hualde 1997a, azentu eredu desberdinetako hitz markatuen azentueretarako). Are gehiago dena, latinez azentua lehen silaban zuten erroak baldin baziren, batzuk bi silabadunak azentu paroxitonoarekin (*lócu(m)* ‘leku’, *libru(m)* ‘liburu’, *ténda(m)* ‘denda’) eta beste batzuk hiru silabadunak azentu proparoxitonoarekin (*témpora(m)* ‘denbora’, *cámara(m)* ‘ganbara’), zaila da azaltzea nola bereizi ziren erro hauek azentu orokorra ere lehen silaban ezartzen bazen. Aukera bat da pentsatzea lehen silaban azentua zeukatzen hitz markatuak eta markatugabeak doinu-azentuen bitartez bereizten zirela, demagun H\* eta L+H\* doinu-azentuen bitartez. Gero, hitz ez-markatuen azentua eskuinerago aldatu zenean, hitz markatuen azentua lehen silaban geratu zen besterik gabe, doinu-azentuen arteko berezitasuna galduz, gaur egun ez baita halakorik inon ikusten. Hau da, beti ere pentsatu beharko genuke [+markatu] bezalako tasun edo marka bat izango zutela erro hauek, eta sistema metrikoak era desberdinean ezartzen ziela azentua erro hauei. Azalpen posible honek daukan arazoa da gaur egun ez dugula doinu-azentu mota horien arrastorik ikusten. Maileguk, beraz, arazoak sortzen dizkiote lehen silabako azentueraren hipotesiari (ikus Martinez Areta 2004 ere).

## 2.2. Mitxelena (1958, 1972, 1977)

Martinetek bezala, Mitxelenak (1958, 1972, 1977) ere aspirazioarekin lotu zuen azentua. Izan ere, hasperena gorde duten ekialdeko euskalkietan honakoa beti lehen edo bigarren silaban doala ikusi zuen berak, inoiz eskuinerago agertzen ez delarik. Murriztapen hau herskari hasperendunetan ere betetzen da, eta baita sudurkari albeolarretik datorren aspirazioari dagokio-



nez, zeina bigarren silaba baino eskuinerago agertuz gero ez zen gordetzen, cf. lat. (*h*)*onóre* > *ohóre* baina lat. *ballaena* > *balea*.

Honekin batera, Mitxelenak hasperena bigarren silaban duten hitzak lehen silaban dutenak baino zaharragoak direla dio, *behar*, *akher*, *bikhe*, *bekhatu* edo *gathe* bezalako hitzak *pharka(tü)*, *khorputz*, *khate* edo *phiper* baino zaharragoak direla suposatuz.

Azkenik, Mitxelenak euskaraz sistematikoa den disimilazio bat lotzen du bigarren silabako azentuerekin. Izan ere, hitz konposatuetan, lehendabizikoa monosilabikoa izanda bi kideek hasperenketa lehen silaban zutenean, bigarren kidearen lehen silabak mantendu zuen /h/-a, inoiz ez lehenak:

- (6) hil + herri > ilherri  
hur + hentu > ürhentü

Hitz bakoitzean aspirazio bat bakarrik onartzearen murriztapen hau Grassmann-en legea bezala ezagutzen da tradizio indoeuoparrean. Indiera zaharrean eta grekera klasikoan ere gertatu zen, eta hizkuntza amerindioetan kontsonante laringalekin gertatzen diren murriztapenen oso antzerakoa da.

### 2.3. Hualde (1995, 2003, 2007)

Hualderen (1995, 2003, 2007) arabera, sintagma mailako azentuera, hitz azentugabe eta azentudunekin —gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik gordetzen dena, alegia— hitz mailako azentuera baino zaharragoa izan behar da, aipatu ditugun beste bi azentuera motak mota honetatik sortu behar zirelarik. Baieztapen hau Bizkaiko sistema besteak baino konplexuagoa delako egiten du Hualdek.

Izan ere, gaur egun Bizkaiko iparraldean daukagun sistema oso markatua da azentu sistemen tipologian. Antzekoa den paralelo bat japonierazko Tokyoko dialektoko azentu eredua da (Pierrehumbert & Beckman 1988, Kubozono 1993). Euskarazko erdialdeko eta ekialdeko azentu ereduak simpleagoak dira prosodikoki, hor ez baitago hitz azentugabe eta azentudunen arteko desberdintasunik, edota erro eta atzizki markatugabe eta markatuen arteko horrelako desberdintasunik; hitz guztiek jaso dezakete azentua, printzipioz.

Honekin batera, morfologiak eragindako azentuzko kontrasteak beste euskalkietan ere hedatuak zeudela aipatzen du Hualdek hirugarren motaren zahartasunaren alde. Larramendik (1729) euskararako deskribatzen duen azentu eredua honakoa da:<sup>2</sup> mugagabean eta singularrean, azentua hitzaren

<sup>2</sup> Ez dago argi zein hizkeratakoa den Larramendik deskribatzen duen azentu eredua, bere jaioterrikoa edo haurtzaroan ezagutu zuena (Andoain eta Hernani) ala beste bat.

azken silaban erortzen da (*egún, escú, arri, guizonác, guizonari, echeán*); pluralean, erroaren azken silaban doa azentua (*guizónac, guizónai, echeétan*). Deribatuetan, erroaren azkenaurreko silaban doa azentua, singularra eta plurala bereiztu gabe (*beguiratzálle, begiratzálleari, begiratzálleac*). Hualdek (1991) ohartarazi zuenez, eredu hau ez da gehiegi aldentzen Bizkaiko iparraldeko tonu-azentuzko hizkeretatik. Errenteriako hizkerarako ere Mitxelenak hitz azentugabe eta azentudunen arteko bereizketa deskribatu zuen (cf. Mitxelena 1958, 1972, 1977: 579; Echenique 1988). Bereizketa hau galdu dela ondoriozta dezakegu, Irurtzunen (2003) arabera.

Hualderen (2003) ustez, bigarren silabako azentua sistema honetatik atera zen. Bi modu daude bilakaera honetarako. Lehena bide arina da. Dakigunez, azentuaren ezaugarri fonetiko nagusia tonu mugimendua da (beherakada zein gorakada, nola mugimendu konplexuagoak beherakada-gorakadekin edo gorakada-beherakadekin, cf. Lehiste 1970, Beckman 1986), eta zentzuzko hipotesia da lehen eta bigarren silaben arteko tonu igoera hori azentutzat hartu zela, berrinterpretazio edo berranalisi baten ondorioz.

Bigarren bideak hainbat pausu eskatzen ditu. Esan dugu Markinan eta Ondarroan sintagma mailako azentua azkenaurreko silaban erortzen dela, ez azkenekoan, Bizkaiko iparraldeko beste hizkeretan bezala. Adibidez, Markinan *lagunantzákó* ('lagunarentzako') *ekarri dot* izango genuke, eta Lekeition edo Gernikan *lagunentzakó* ('lagunarentzako') *ekarri dot*. Hualdek (2003) Antzuola eta Bergarako azentu patroiarekin lotzen du hau, hizkera hauetan singularreko hitzetan azentua hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen baita. Urolaldeko azentuera ere honekin lotzen du Hualdek. Eskualde honetan azentua hitzaren hirugarren silaban doa (beti ere singularrari buruz ari garela, konparaketarako), hau da, azentuaren kokagunea hitzaren hasieratik hasten da kalkulatzen. Hualderen ustez berrinterpretazio hau lau silabako hitzetatik dator (*lagunána* 'lagunarena' bezalako hitzetan azentuaren kokapena hitz hasieratik hirugarren silaban joan daiteke, edo hitz bukaeratik azkenaurrekoan). Urolaldean hiru silabako hitzetan azentua bigarren silaban doa, azken silabaren estrametrikalitateagatik (Markina, Bergara eta inguruko hizkeretan azken silabak ezin du azenturik jaso): *gizóna, mutilla, burúe*, etab. Kontuan hartzen badugu gainera pluralean hitz guztiek azentua singularrean baino silaba bat lehenago daukatela (*itturríxe-itturríxek, mendikúe-mendikúek, alargúne-alárgunek*, etab.), bigarren silabako azentuak presentzia handia du, eta erraz pasa gaitezke azentu sistema batera non kokagune orokorra hitzaren bigarren silaba den, hots erdialdeko sistema batera.

Hala ere, Hualderen azalpen diakronikoa ez da osoa, ez baitu azaltzen nola sortu zen sintagma mailako azentuera hori, edota sistema zahar horretan nola sortu ziren sintagma hasierako tonu gorakada eta goiko tonuaren lautada. Hau da, eskematikoki laburtuz, ez du azaltzen nondik datorren  $\underline{L}/\underline{H}H^*H^*$  patroia edo eredu. Hauxe da presezki Elordieta (2011) saiatzten dena azaltzen, 3. atalean gogoratuko dugun bezala.

## 2.4. **Martinez-Areta (2004)**

Azkenik, Martinez-Aretak (2004), Mitxelenaren (1958, 1977) lanetatik abiatuta, gaur egun aurki daitezkeen azentuera mota orokorrak islatzen dituzten hiru aitzin-azentuera talde ezberdin bereizten ditu:

- I. Aitzin-mendebaldekoa: Mitxelenaren I. motari dagokio eta gipuzkera, bizkaiera eta “Gipuzkoatik gertu dauden hizkera nafar batzuk” (Goizueta inguruko hizkerei buruz ari dela agian) osatzen dituzte.
- II. Aitzin-erdikoa: Mitxelenaren IV. mota zenak Bidasoa harana, Bortziriak eta kostaldeko lapurtera hartzen ditu bere baitan.
- III. Aitzin-ekialdekoa: Mitxelenaren II. motari dagokiona da. Honakoa zuberera eta erronkarieraren azentuen sorburua izango litzateke.

Proposamen honek, Mitxelenaren hipotesiaren zordun izateagatik, haren arazo zenbait mantentzen ditu. Hasteko, Martinez-Aretak, Hualderen (1995, 2003) kontra, aitzin-erdiko azentuera aitzin-mendebaldekoa baino zaharra goa dela asumitzen du bestelako azalpenik gabe. Hau da, hitzaren bigarren silabako azentua osagai sintaktikoaren azken silabako azentua baino zaharra goa dela. Mitxelenak bezala, sistema sinple batetik askoz sistema konplexuago batera nola heltzen garen azaltzeko zailtasunak ditu, berak aitortzen duenez (Martinez-Areta 2004: 198-204).

## 3. **Azentueren bilakaera: gure proposamena**

### 3.1. **Aitzineuskararen azentua**

Elordieta (2011) jarraituz, 2. atalean aurkeztutako hiru hipotesietatik (Martinez-Aretarena Mitxelenarenarekin batera kokatuz), garairik zaharrenarentzat zuzenagoa dena Hualderena litzateke. Edo hobeki esanda, Hualdek arrazoa duela uste dugu eta gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik gordetzen den azentu eredua, gaur egun Erdialdeko eredu bezala ikusten duguna (hots, hitzaren bigarren silabako azentua) baino zaharra goa izan behar dela. Zaila dirudi argudiatzea sistema sinpleago batetik, non azentua beti toki berebean markatzen den (hots bigarren silaban), inolako balio morfologikorik gabe, sistema konplexuago batera pasatu zela euskara, non azentuak balio morfologikoa zuen eta azentuaren kokagunea lehen morfema azentudunak ezartzen zuen —honen aurreko silaban kokatzen zelarik—. Hein berean, zaila da azaltzea zergatik, edo nola, pasatu zen euskara hitz mailako azentua izatetik sintagma mailako azentua izatera, non hitz markatugabeek ez daukaten azenturik, eta hurrengo hitzekin talde prosodiko batean lotzen diren.

Hau guztia onartuz ere, puntu garrantzitsu bat falta da azaltzeko. 2.3 atalaren bukaeran aipatu bezala, Hualdek ez du argitzen nola sortu zen sin-

tagma mailako azentuera hori, edota sistema zahar horretan nola sortu ziren sintagma hasierako tonu gorakada eta goiko tonuaren lautada. Hau da, nola sortu zen  $\underline{L}/\text{HHH}^*$  patroia edo eredua?

Elordieta (2011) hutsune hauek betetzen saiatzen da, hitz azentugabeek osatzen dituzten talde prosodikoen sorrera azaltzeko hipotesi bat plazaratuz. Atzerago jotzen du euskararen historian, Lakarrak (1995, 2005, 2006) ikertutako aitzineuskararen garaira. Garai honetan erroak silaba bakarrekoeak ziren, CVC formarekin, eta erreduplikazioaren bitartez, CV-CVC hitzak sortu ziren (adib. *\*zen* > *ze-zen*; *\*gor* > *go-gor*). Eztabaidagarria da zuzenean CV moldea hartu zuen erreduplikazioak, ala *\*CVC*- forma zuen hasiera batean, eta gero kodako kontsonantea erori zen (i.e., *\*zen-zen* > *ze-zen*, *\*gor-gor* > *go-gor*), baina argi dago ez zela erroaren kopia osoa bezala geratu, eta beraz forma ahulagoa zeukala (berdin *\*gi*, *\*la* eta *\*sa* partikulekin, *vid.* Lakarra 2005: 427-428). Bestalde, erroaren hasierako kontsonantea *\*d* bazen, kontsonante hau erori egiten zen erreduplikatutako partean: *\*dol* > *do(l)-dol* > *o-dol*, *\*dar* > *\*da(r)-dar* > *a-dar*. Argi dago, beraz, kopia fonologikoki ahulagoa zela erroa baino, eta honek erroak azentua zeramala pentsarazten du, silaba azentudunak sendoagoak baitira oro har hizkuntzetan zehar, ahultze eta asimilazio prozesuek zailago harrapatzen dituztelarik. Bestalde, erroaren silaba gorputz handiagokoa denez, silaba itxia delarik (i.e., koda bat duelarik), zentzuzkoa dirudi pentsatzea hitz zaharretan oin ianbiko bat ezartzen zela, [(C)V.'CVC] eredu orokorarekin (i.e., [σ.σ]). Eta erroa hitzaren bigarren (eta azken) silaba zenez, garai honetan azentua hitzaren bigarren eta azken silaban zihoan.

Azentuen ezaugarri fonetikorik argiena eta orokorrena hizkuntzen artean oinarrizko maiztasuna ( $F_0$ ) da, i.e., *pitch*-a edo tonua (cf. Hyman 1977, Beckman 1986, besteak beste). Aitzineuskaraz azentua goiko tonu baten bitartez edo tonu gorakada baten bitartez adierazten zela pentsa dezakegu, hau da, bigarren silaban  $H^*$  tonua ezartzen zelarik eta lehendabiziko silabak tonu baxua (L) zuelarik. Era ekonomikoagoan, protobantuerarako proposatu ohi den bezala (cf. Nash 1992, Kaji 1996), H tonua bakarrik zegoela fonologikoki espezifikatuta proposa dezakegu, eta L tonua ez. Hitzen melodia tonala [0  $H^*$ ] izan zitekeen, beraz. Esate baterako, sintagma bateko bi hitz jarraian ahoskatuz, tonuen sekuentzia honakoa litzateke (kanpoko kako zuzenek osagaiaren mugak adierazten dituzte, eta barruko kako zuzenek hitzen mugak):

$$(7) \quad [[0 H^*]_{\text{hitza}} [0 H^*]_{\text{hitza}}]_{\text{osagaia}}$$

Talde sintaktikoen barruan (hots, sintagma baten barruan), lehen hitzaren H doinua bigarren hitzaren lehen silabara hedatu zela erraz onar dezakegu, nahiko naturala izan daitekeen asimilazio tonal baten bidez,  $H^*$  biren artean egoteagatik. Hedadura edo asimilazio honek homogeneousotasuna ematen dio talde osoari [[0  $H^*$ ] [H  $H^*$ ]] emanez:

$$(8) \quad (a) \quad [[0 H^*] [0 H^*]] \quad > \quad (b) \quad [[0 H^*] [H H^*]]$$

Gaur egun Bizkaiko iparraldean aurkitzen dugun sistemara pasatzeko, hiru gauza gehiago gertatu behar dira: (1) osagai hasierako silabak L tonua hartzea, tonurik gabeko silabetan L tonua ezartzen duen arau baten bitartez, azaleko egitura fonologikoan (besteak beste hizkuntza bantuetan gertatu den bezala); (2) osagai bukaerako H\* azentutzat interpretatzea, osagai edo sintagmaren lehen hitzeko bigarren silabako H\* tonuak azentutasuna galduz; eta (3) bigarren silabako goiko tonutik azenturaino goiko tonua mantentzea eta azentua sintagma osoaren ezaugarria izatea, hitz mailakoa izan beharrean. Hiru pausu hauek (9)n adierazten ditugu, (8b)tik abiatuta:

$$(9) \quad [[0 \text{ H}^*] [\text{H H}^*]] > (1) \quad [[\text{L H}^*] [\text{H H}^*]] > (2) \quad [[\text{L H}] [\text{H H}^*]] > (3) \quad [\text{L H}^n \text{H}^*]$$

Aipatutako bigarren pausuak badu motibazioa; bi azentu posibletatik batekin bakarrik geratzeak kulminatibotasuna lortzen du, eta azken silabako azentuak demarkatibotasuna ere lortzen du, baina ez hitzarena, talde prosodikoarena baizik. Orain hitzek ez dute azentu propiorik, eta talde bat osatzen dute, azentua azken silaban doalarik. Bi azentuetatik eskuinekoa gailentzea ere hitz mailako azken silabako azentuarekin lot daiteke, nolabaiteko koherentzia jarraituz. Azkenik, bigarren silabako H tonutik bukaerako H\* tonura bitartean, goiko tonuzko lautada dugu, goiko tonua mantentzen duena. Hortaz H<sup>n</sup> ikurra (3)n, taldearen bigarren silabako H tonua hedatzen delako. Horrela, Bizkaiko iparraldeak oraindik erakusten duen sistemara heltzen gara, hots [L H<sup>n</sup> H\*]. Gehitu beharra dago, dena den, azken silabako azentua ongi entzuteko eta beraz bere helburua zena lortzeko tonuaren aldetik kontraste bat behar dela. Azentua tonu mugimenduen bitartez gauzatzen dela gogorazti dugu hemen, eta beraz H\*ren ostean beheko tonu bat gutxienez behar da. Beheko tonu hau hurrengo taldeko lehen silabako L tonua izango da. Hau da, [L H<sup>n</sup> H\*] [L H<sup>n</sup> H\*] kate batean, lehen talde bukaerako H\* eta bigarren talde hasierako Lren artean dagoen tonu beheakadarekin gauzatzen da azentua —azken puntu hau ez zen Elordietia 2011 lanean aipatzen—.

Hau da Elordietaren (2011) ekarpen nagusia, hots azaltzea nola sortu zen Hualderen (1995, 2003, 2007) ustez eredurik zaharrena den azentuera, gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik mantentzen dena bizirik.

### 3.2. Sintagma mailako azentutik bigarren silabako azentura

Eredu honetatik beste azentu ereduak sortu ziren, Hualderen ustez. Bere 2003ko artikuluan, egile honek erdialdeko azentuerara heltzeko bi bilakaera posible ematen ditu, 2.3 atalean aurkeztu dugun bezala. Lehen aukera da lehen eta bigarren silaben arteko tonu igoera hori azentutzat hartzea, berrinterpretazio edo berranalisi baten bidez. Hain zuzen ere, Bizkaiko iparraldean kokatuko genukeen Bilboko euskaran azentua hitzaren bigarren silaban kokatzen da (cf. Gaminde 1995, 1998a, 1998b), eta Hualderen (2003) ustez Bizkaiko iparraldeko bigarren silabako tonu igoera azentutzat berrinterpretatu da, segu-

ruenik Bilbon hain presentzia zabala duen gaztelaniaren eraginez. Dakigunez, gaztelaniaz azentua tonu igoeraren bitartez gauzatzen da batez ere (iraupena eta intentsitatearen igoera, gertatzen diren arren, ez dira horren nahitaezkoak), eta gaztelerazko errealizazio fonetiko honek bere eragina izan du azentuaren kokagunearen berrinterpretazioa Bilboko azpieuskalkian bultzatzeko orduan. Gaur egun zabalduena den erdialdeko azentu ereduak ere antzeko bilakaera izan zezakeen. Bide labur, honen egiantza Elordieta eta Hualdek (2003) frogatu zuten, oharmenezko esperimantu batean. Lan horretan erakusten den bezala, gipuzkoarrek eta euskaldun berriek Bizkaiko iparraldeko bigarren silabako tonu gorakada azentutzat hartzeko joera erakusten dute.

Bigarren silabako azentu eredura heltzeko bigarren aukera Bizkaiko iparraldeko eta erdialdeko azentu ereduaren artean dauden hizkeren azentu ereduak erakusten dute. Markinan eta Ondarroan sintagma mailako azentua azkenaurreko silaban erortzen da, eta ez azkenekoan. Hualderen (2003) ustez, hemendik etor daiteke Antzuola eta Bergarako azentu patroia, singularrean azentua hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen baita bertan. Urolaldean jada azentuaren kokagunaren berrinterpretazio bat ikusten dugu, hemen azentuaren kokagunea hitzaren hasieratik hasten baita kalkulatzeko. Azpeitia, Urrestilla eta Azkoitian, esate baterako, azentua hitzaren hirugarren silaban doa (beti ere singularrean, konparaketarako). Hualderen ustez, berrinterpretazio hau lau silabako hitzetatik dator (*lagunána* ‘lagunarena’ bezalako hitzetan azentuaren kokapena hitz hasieratik hirugarren silaban joan daiteke, edo hitz bukaeratik azkenaurrekoan). Hirugarren silabako kokagunetik bigarren silabakora pasatzeko pausua Urolaldetik etor zitekeen. Hizkera hauetan hiru silabako hitzetan azentua bigarren silaban doa, azken silabaren estrametrikalitateagatik (beste hizkera batzuetan bezala, Markina eta Bergarakoetan, besteak beste). Gainera, Urolaldean azentua beti doa singularrean baino silaba bat lehenago pluralean, eta beraz lau silabako pluraletan ere azentua bigarren silaban doa (*itturríxe-ittúrrixek*, *mendikúe-mendíkuek*, *alargúne-alárgunek*, etab.). Honek bigarren silabako azentuak presentzia handia duela esan nahi du, eta erraz pasa gaitezkeela patroia orokor bezala hitzaren bigarren silaba duen azentu sistema batera. Hauxe da, hain zuzen, erdialdeko sistema.

Bigarren silabako azentu eredura pasatzeko lehen aukera (bide laburra) honela adieraziko genuke. Lehenik, sintagma mailako bigarren silabako tonu igoera, H ikurrarekin markatu duguna, azentutzat hartzen da, hots H\*. Berrinterpretazio honek jatorrizko talde bukaerako H\* azentua galarazten du, azentu bat bakarrik onartzen baita talde bakoitzeko:

$$(10) [\underline{L}/\underline{H} \underline{H} \underline{H} \underline{H}^*] > [\underline{L}/\underline{H}^* \underline{H} \underline{H}]$$

Nolabait, (9)ko bigarren pausaren kontrako mugimendua dela dirudi, beste norabidean. Hala ere, (9)ko bigarren pausuan aldaketa azentutik azentura izan zen, hau da, bi azenturen arteko lehia, eta (10)en agertzen den aldaketa berriago hau tonu gorakadaren berrinterpretazioa izan zela proposatzen dugu.

Bestalde, bada beste argudio bat azentua ezkeralderago mugitzearen alde aipa daitekeena. Lakarrak (2005, 2006) euskarak aldaketa tipologikoa jasan zuela proposatzen du. Aitzineuskarak konposaketa eta aurrizkiak izango zituen, erroa hitzaren eskuinean zegoelarik, eta beranduago atzizkiak izatera pasatu zen, erroa ezkeraldean joango zelarik. Lakarrak (eta Jauregik 2007) azentuaren kokapenarekin lotzen dute aldaketa hau, Donegan eta Stampe-k (1983) mon-khmer eta munda hizkuntza austroasiatikoen arteko ezberdintasun tipologikoa ulertzeko erabili zuten azalpena jarraituz: aitzineuskarak azentua eskuinaldean izango lukeela eta beranduago ezkeraldera mugitu zela. Hipotesi hau zuzena balitz, azentu aldaketarako beste aukera bat litzateke, Hualderen (1995, 2003, 2007) tonu gorakadaren berrinterpretazioarekin batera (edo agian arrazoi biak elkartu ziren).

Azkenik, eztabaidatzeko geratzen da bigarren silabako azentuaren ondoko silaben H tonuekin zer gertatu zen. Egia esan, bigarren silabako azentua ongi azalarazteko nahikoa litzateke tonu gorakadarekin. Ez da beharrezkoa hurrengo silabatik aurrera beste silabak beheko tonuan egotea, hau da, H izatetik L izatera pasatzea. H\*-ren ostean L tonu bat jartzeaz tonu behearakada izango genuke, eta beraz tonu gorakada eta tonu behearakada izango genituzke jarraian, nolabait anbiguotasuna sortuz azentuaren gauzatzearen aldetik, biak baitira azentua tonalki gauzatzeko aukerak. Baina L tonuak ez badira sartzen ere, azentu osteko H tonu horiek nahitaez indarra edo nabarmentasuna galdu behar zuten silaba azentudunarekiko. Beraz, bi aukera aurreikus daitezke. Bat da H tonuak mantentzea baina azentuzko H\* baino maila baxuagoan. Bestea da H tonuak fonologikoki galtzea, hau da, hitzeko silaba horiek fonologikoki tonurik gabe uztea, eta azentuzko H\*-tik hurrengo hitzeko hasierako beheko tonuraino (L) interpolazio fonetikoa egotea. Lehen kasuan, bigarren silabatik hitz bukaeraraino goiko tonu maila apur bat jaitziko litzateke, eta bigarreanean tonu behearakada nabarmenagoa izango genuke hitz bukaeraraino. Lehen aukera Mallabian ikusten da, Hualdek (2003) erakusten duen bezala. Bigarren aukera gaur egungo erdialdeko ereduaren ikus daiteke (ikus Elordieta eta Hualde agertzeke).

Hualdek (2003) bigarren silabako azentu eredura pasatzeko bigarren aukeraz ez dugu ezer gehitzeko. Hau da, osagai mailako azentu ereduko zenbait hizkeretan osagaiko azkenaurreko silabara mugitu zela azentua, eta inguruko hizkera askotan horrek azentuaren ezkerrean aldatzea ekarri zuela.

Hitz hasieratik bigarren silabaren azentuaren kokapen honek hasperenaren distribuzio modernoa baldintzatuko luke, Mitxelenak (1977) argudiatu bezala, baita horren ondorioz gertaturiko hautemate metatesia (Egurtzegi 2011) ere, Lakarraren (2009)  $h_3 > h_1$ -i dagokiona, hain zuzen (ikus Egurtzegi 2013a).

Hasperena (cf. Mitxelena 1977, Igartua 2001, 2006) eta herskari hasperendunak (Mitxelena 1951, 1977) lehen bi silabetan baino ez dira agertzen segmentu horiek gorde dituzten ekialdeko euskalkietan. Bai Grassmanen legea, eta baita herskari hasperendunek jasandako prozesu analogoa ere (cf. Mitxelena 1951) domeinu honen barruan gertatzen direnez, segmentu

hasperendunak lehendabiziko bi silabetara mugatzen dituen murriztapena disimilazio prozesuen aurrekoa bide da. Mitxelena (1977: 406) dagoeneko lotu zuen distribuzio murriztapen hau azentuaren kokapenarekin, Galesaren historian oinarrituta. Izan ere, Galesean azentua azken silabatik azkenurrekora mugitu ostean bokal azentudunaren osteko (hots, azken silabako) /h/ guztiak galdu ziren. Egun segurtasun handiagoarekin burutu dezakegu lotura hori, ikerketa tipologikoen erakutsi baitute hasperena eta azentuaren ozen-tasunaren arteko lotura hizkuntza askotan aurki daitekeela (cf. Miller 2012: 127). 4.3 atalean zabaltzen dira hasperenaren distribuzioan hizkuntzaren historian zehar gertatu diren aldaketak.

### 3.3. Bigarren silabako azentutik ekialdeko azentura

Azkenik, bigarren silabako azentueratik ekialdeko azentuera sortuko litzateke. Mitxelena (1977) eta Egurtzegi (2013a) jarraitzen ditugu hemen, suposatuz ekialdeko hitzunek hiru silabadun hitzetan bigarren silabako azentua azkenurrekoari dagokiola berrinterpretatu zutela. (11)k erakusten du prozesu hau:

(11)  $[\sigma \acute{\sigma} \sigma] > [(\sigma) \sigma \acute{\sigma}]$


Ekialdean bada azentuera markaturik: azken silabakoa. Dakigunez (ikus 1. atala ere), azentu hau azken silabako diptongoen sorreraren (*aĥái < aĥari*) edo bokal erorketen edo bateraketan (*alabá < alabáa*, *orgǎ < \*organa*, *ardú < \*ardano*) ondorio da. Beste azentu ereduetan azentuera markatua duten latinetik datozen maileguak azentuera ez-markatuan integraturik daude honakoan. Hala ere, aipatutako bokal bateraketak bokal sudurkariz amaitzen diren oxitonen patroia bat sortu du zubereran (cf. Hualde 1997a: 76) eta beste ereduetan agertzen direnak bezain zaharrak ez diren mailegu zenbait (*salú*, cf. fr. *salon* /sa'lɔ̃/, *uñú*, cf. fr. *oignon* /ɔ̃'ɲɔ̃/, etab.) talde honetan aurki daitezke. Eredu honetako hitz markatuen izaera bere berriagotasunaren seinale dela uste dugu, bertan dauden hitzen silaba galerak arazo handirik gabe berreraiki daitezkeelako kasu guztietan.

Beraz, hemen aldarrikatzen dugun ideia da ekialdean hitzaren bigarren silabako azentua izan zela, eta honek hasperena hitzaren lehen bi silabetara mugatzen duen murriztapena azalduko luke (Egurtzegi 2013a). Gero, azentua azkenurreko silabara mugitu zen. Garapen honek aipatu berri den ipar-ekialdeko euskalkietan hasperenak duen distribuzioaren berri ematen du, proposatutako garapenaren arabera, ekialdeko azentuera duten euskalkiek, bai hasperena eta baita herskari hasperendunak gordetzen dituen zubererak kasu, eredu horren aurretik gaur egungo hasperenaren distribuzioa baldintzatu zuen eta egun erdialdean dagoen hitz hasieratik bigarren silabako azentuera izan zutelako. Kontrako kronologia erlatiboak ez luke distribuzio hau azalduko. Hau da, ekialdeko azentuera zaharragoa balitz bigarren silabako azentu eredua




baino, birritan berreraiki beharko litzateke ekialdeko azentuera, garai zahar bateko azkenurreko silabako azentutik bigarren silabako azentura, eta berriz ere azkenurreko silabako azentura, hots gaur egungo eredura.

Elordietaren lanean (2011) ez zen honakoa kontuan hartu, eta adarrezta-tze konplexuago bat proposatu zen. Honakoa (12) adibidean aurkezten da:



Honakoa eskema sinpleago bat proposatuko dugu, zeinetan prozesu bakoitzak beste bakar batera eramateaz gain, bere errepresentazioa izango duen egungo moten artean. (13)n agertzen den eskeman euskal azentu ereduen bilakaera irudikatzen dugu, goitik beherako norabideak, kronologia erlatiboa adieraziz. Beheko partean, azentu ereduen gaur egungo ordezkariak jarri ditugu, azentu erduei nolabaiteko kokapen geografiko zabal bat ere emanez.



Kronologia erlatibo honi adarkatze bat geratuko litzaioke. Hualde eta Lujanbiok (2008), Hualde *et al.*-ek (2008) eta batez ere Hualdek (2012) erakusten dutenez, gaur egun hego-mendebaldeko goi nafarreraz (Goizuetako hizkeran, hain zuzen), azentua hitzaren lehen bi silabetan joan daiteke. Zabalduena edo orokorra bigarren silabakoa da, singularreko eta mugagabeko hitz eta adjektibo gehienek daramatena. Azentu hau tonu beherakadaren bitartez gauzatzen da (H\*+L). Zenbait errok lehen silaban dute azentua, tonu beherakadarekin ere (adib. *áma*, *úme*, *sáltsa*). Bestalde, bada beste azentu mota bat, beheko tonuan gauzatzen dena, edo beheranzko tonu mugimendurekin (L\* edo H+L\*<sup>3</sup>). Azentu hau lehen edo bigarren silaban joan daiteke, batez ere mailegu eta euskal jatorrizko hitz batzuetan (adib. *sálto*, *kàfe*, *fàbrica*, *lèngusu*, *àurre*, *àtze*, *èuzki*, *eskòla*, *basèrri*, *borròka*, *attàiarra*, *belàrri*). Hiru silaba edo gutxiagoko erroek azentu markatu hau erakusten dute pluralean doazenean, edo eratorpenezko atzizki batzuekin (adib. *mendia* (*abs.sg.*)/*mèndik* (*abs.pl.*), *gizónari* (*dat.sg.*)/*gizònari* (*dat.pl.*), *úmek* (*erg.sg.*)/*ùmek* (*erg.pl.*), *auzó/auzòtar*, *beldúrra/beldürtia*, *béltza/béltzagi*). Hualdek (2012) beheko tonuarekin gauzatzen den azentua eta lehen silaban ezartzen den goitik beherako azentua markatutzat hartzen ditu. Interesgarriena da Goizuetan azentu horiek dauzkaten erroak eta atzizkiak azentuera markatua dutela baita ere Bizkaiko iparraldean —hitz guztiekin erabateko paralelotasuna egon ez arren—. Hualdek proposatzen duena da Goizuetako azentu markatua Bizkaiko iparraldean bezala sortu zela: konposatu zaharretan —azentua lehen kidearen azken silaban erori zelarik— eta zenbait eratorpen atzizkiez osaturiko hitzetan —azentua erroaren azken silaban— ezarriz; ikus Hualde (2007: 298). Azentu markatua pluralekin ere ezartzen zen, pluraleko atzizkiak nolabaiteko konposizioaren bitartez lotu zirelarik (ikus Mitxelena 1981): \**gizon+haga* > *gizónak*. Azkenik, Hualdek (2012) Goizuetako azentu ez-markatua (goitik beherakoa, i.e. H\*+L) garai batean euskaraz orokorra zen sintagma mailako bigarren silabako tonu gorakaden berrinterpretazioaren ondorioz azaltzen du, berak arinago (Hualde 1995, 2007) proposatu bezala, eta gure lan honetan onartu dugun bezala.

Beraz, Goizuetako azentu ereduak (edo erduek), gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik aurkitu ahal den talde mailako azentua euskalkietan zabalduz zegoela erakusten du (ikus ondorengo 4.1 atala ere), eta Goizuetako azentu patroia markatuak beranduago gertatu zen bigarren silabako azentu orokorra baino zaharragoak direla ere. Datu hauek kontuan izanik, (13)ko eskeman hego-mendebaldeko goi-nafarrera sintagma mailako azken silabako azentu ereduaren eta hitz mailako bigarren silabako azentu ereduaren artean kokatuko litzateke.

<sup>3</sup> H+L\* ikurra ez du Hualdek (2012) erabiltzen, baizik eta ‘beheranzko’ (*falling*), baina artikulu horretako irudiak ikusita, beheranzko kasuetan tonua azentuareko silabatik jaisten dator. Beraz, ematen du hori izango litzatekeela notaziorik argiena teoria metriko-autosegmentalean.

Azkenik, beste bi gai geratuko litzaizkiguke azaltzeko: gaur egun Bizkaiko iparraldeko eta erdialdeko ereduaren artean dauden azentu sistema bereziak, hots Bizkaiko hegoaldekoa (Arratiakoa), Bergara aldekoa eta Urolaldekoa, eta eredu desberdinen azentu markatuen sorrera eta bilakabidea. Lan honen orri kopuru mugak direla eta, gai hauek ezin ditugu behar den detailarekin landu. Hemen Hualderen lanetan proposatutakoa jarraituko genuke (Hualde 1993, 1995, 2003, 2006a, 2006b, 2007, 2012). Hurrengo lan baterako utzi beharko dugu gai hauei buruzko eztabaida sakonago bat.

#### 4. Hipotesiaren aldeko ebidentzia

Proposatu berri dugun hipotesiaren alde mota ezberdinetako ebidentziak aurkitzen ditugu hainbat esparrutan. Atal honetan, ebidentzia geografikoa, hitz markatuen ebidentzia eta ebidentzia segmentala aurkeztuko ditugu, hiru azpiataletan banatuta.

##### 4.1. Ebidentzia geografikoa

Denboran atzera eginez gero, orain Bizkaiko iparraldera mugatzen den azentuaren bereizgarri den hitz markatu eta ez-markatuen arteko bereizketa XVIII. mendean erdialdeko euskalkian zehar hedaturik zegoela ikus daiteke, Larramendiren (1729) idazkietan kasu (ikus Hualde 1997a, 2007, besteak beste).

Modu berean, goi nafarreraren baitan kokatzen den Goizuetako euskarak Bizkaian topa daitekeen azentuaren aldaera bat erakusten du gaur egunera arte (cf. Hualde eta Lujanbio 2008, Hualde *et al.* 2008, Hualde 2012). Aldaera honetan, doinu-azentua ez da sintagma mailakoa, hitz mailakoa baizik.

Honekin batera, gure hipotesiaren arabera garapen historikoan azentuera berriak ekialderantz zabalduko liriatekeela aipatu nahi da. Isoglosa orokor hauen arabera, mendebaldean sistema arkaikoenak gordetzen diren bitartean erdialdean berritzaileagoak egongo liriateke eta ekialdean berritzaileenak (azentuaren aldetik).

##### 4.2. Hitz markatuen ebidentzia

Hualdek (1996a, 1997a, 2006a, 2007) ongi dioten bezala, hitz markatu eta ez-markatuen sistemak batasun nabarmena erakusten du bere azaleko dibertsitatearen azpian. Izan ere, azentuera markatua eragiten duten hitz eta hizki azentudunek Bizkaia iparraldean azentua azken aurreko silaba batean kokatzen dute eta, modu berean, hitz eta hizki horietako askok erdialdeko

euskararen erantzua zentzuzkoa eragiten duela azentua hitz ez-markatueta baino silaba bat aurrerago (i.e., hitz hasieran) agertzen delarik (cf. Hualde 1997a).

Hurrengo adibidean, bai Bizkaiko iparraldeko hizkera batean (Getxo), eta baita Erdialdeko euskararen ere (Beasaingo hizkeran, hain zuzen) azentua markatua eragiten duten zenbait hitz eta hizki zerrendatzen dira.

(14) Bizkaiko iparraldea (Getxo)	Erdialdeko euskara (Beasain)
bélarri	bélarri
líb(u)ru	líburu
lodí-ena	lódi-ena
arín-egi	árin-egi

Honekin batera, hitz markatuen sistema oraindik ere Bizkaitik urruti agertzen dela aipatu beharra dago, Gipuzkoako ekialdean (cf. Irurtzun 2003) eta Goizuetan (goinafarrera; cf. Hualde eta Lujanbio 2008, Hualde *et al.* 2008, Hualde 2012) ere aurki daitezkeelako sistema honen antzerakoak.

#### 4.3. Ebidentzia segmentala

Esan dugu Mitxelenari euskararen azentua zaharra hitzaren bigarren silaban zegoela pentsarazteko datuak hasperenaren eta herskari hasperendunen kokapena zela. Mitxelenak (1958) hasperena azentua aurretik baino ez dela agertzen zehaztu zuen aspaldi, segmentu honen kokapena lehenengo bi silabetako ekinetara murrizten dela zehaztu ostean. Gainera, Mitxelenak murriztapen hau herskari hasperendunei ere egokitzen zaiela ikusi zuen. Murriztapen hau ekialdeko dialekto modernoetako adibideetan oinarrituta proposatu zuen, euskalki hauetan /h/ sistematikoki lehendabiziko bi silabetan baino ez zaigulako agertzen. Honen berri ematen duete (15)ko adibideak:

(15) hamar, zuhaitz, haur, bihar, harri, uharte, hiru, behar

Halere, Mitxelenak ez zituen murriztapen honetarako kontuan izan Erdi Aroko mendebaldeko toponimiako adibideak, zeintzuen arabera euskalki horretan, galdu aurretik, hasperena hitzaren edozein silaban ager zitekeen (Egurtzegi 2013a). (16)n agertzen dira Done Miliagako rejtatik hartutako garai honetako zenbait adibideak:

(16) *Hilarrazaha, Hascarzaha, Arroiaha, Udalha, Aialha, Hurizahar, Harhaia, Hagurahin, Hereinzguhin, Hararihini, Adurzaha, Gastehiz*

Baina are adibide esanguratsuagoak aurki daitezke ekialdeko euskalkietan, hasperena duten hitz zenbait latinezko formekin, Erdi Aroko dokumentazioarekin zein berreraikitako formekin alderatuz gero. Izan ere, hainbat hitzek, azentueraren aldaketak baldintzaturiko metatesi baten ondorioz, has-

perena beste toki ezberdin batean izango dute ekialdeko euskalkietan duten forma modernoan.

- (17) lat. *arena* > \**areha* > *harea*, lat. *leone(m)* > \**leohe* > *lehoi*, \**hur-ban-i* > *ibahi* > *hibai*

Izan ere, adibide hauetako gutxi batzuk aurki daitezke Erdi Aroko mendebaldeko toponimian hasperena etimologikoki dagokion tokian dagoela. Honen adibide argiena hurrengoa da:

- (18) \*(*h*)*u(r)bani* > *ubahi* (cf. *Muruvahy* (Errioxa 1251),<sup>4</sup> apud Aznar 2009) > *ibahi* (cf. *Sagibahia* (SMillán 1128), San Millán de Becerro Galicanon agertzen dena: Julen Manterolaren ahozko oharra) > *hibai*

Adibide hauek erdialdeko azentua inoiz izan ez duten (eta hasperena gorde duten) edozein euskalkiri legezkiekeenak dira, bigarren silabako azentuera berri horrek eragingo lituzkeelako bai hasperena lehenengo bi silabetara mugatzen duen murriztapena eta baita hurrengo silabetako hasperenen metatesia ere (cf. Egurtzegi 2013a eta 2013b).

Aipatutako metatesi prozesu hau, aurreko lanetan hautemate metatesi (cf. Blevins & Garrett 1998, 2004) bezala analizatu da (cf. Egurtzegi 2011, 2013a eta 2013b), eta bereizgarri fonetiko luzeak (cf. Ohala 1981, 1993) dituzten segmentu jakin batzuen kokapenaren berrinterpretazio ez etimologikoan datza. Izan ere, bereizgarri fonetiko batzuk, eragin dituen segmentu jakinari kate fonikoan dagokion kokapenean ez ezik, horren albokoetan ere agertzen dira. Dagokigun hasperenak eragiten dituen energia eta zarata handiagoak (Ladefoged *et al.* 1988, cf. Egurtzegi 2011) inguruko bokal guztiak *breathy voice* ezaugarriaz “kutsatzen” ditu (Egurtzegi 2013b espektrogramen bitartez erakusten du honakoa). Kate fonikoan, leku batean baino gehiagotan hauteman daitezkeen segmentu hauei hiztunak esleitutako jatorrizko kokapena berreskuratzea ez da beti eginkizun erraza izaten entzuleentzako. Jatorrizko kokapen horren orde, entzuleak segmentu horri etimologikoki zuzena ez den beste bat egokituko balio, fonologizatu (cf. Hyman 1976) litekeen metatesi prozesu baten aurrean egongo ginatke.

Honi lotu dakioke Ultan-ek (1978: 395) hizkuntza askotan aurkitzen duen hurrengo joera: aldaketa fonotaktiko nabarmenen ostean galduko liratekeen segmentuak fonotaktikoki onargarria den kokapen berri batean berrinterpretatzeko aukera (ikus Egurtzegi 2011 honi buruz). Izan ere, bilakabide hau modu ia sistematikoan gertatu zen bigarren silabarako azentuera aldaketaren ostean, hasperena lehenengo bi silaben ekinetara mugatzen duen murriztapen bat sortu baitzen azentuera honen garapenaren ondorioz.

<sup>4</sup> *Morafay*, *Murafay* (1156), *Morufay* (1156) edo *Murufay* (1209) bezalako /f/ bat erakusten duten formek ere ematen digute /h/ honen berri, gogoan izan /w/, /b/ [β] > /f/ bilakaera ondoko silaba batean hasperen bat zegoenean gertatu zela (cf. Hualde 1997b: 422-423, Egurtzegi 2013a: 153-154), \**gau-hari* > *afari* eta *auher* > *alfer*-en kasuan bezala.

## 5. Ondorioak

Osaturiko kronologiak euskaraz egun aurki daitezkeen hiru azentuera mota nagusien garapen historikoaren berri ematen du. Kronologia hau ebidentzia segmental, historiko eta geografikoan oinarritu da. Aurkeztutakoak aurreko autoreek (Mitxelena, Hualde) egindako lana jasozten du, autore hauen ekarpen nagusiak bateratu eta hipotesi handiago batean integratu dituelarik. Lakarraren erro monosilabikoaren teoriari jarraikiz, hizkuntza egoera zaharrago batek izan zezakeen sistema pro-sodiko posible bat proposatu da, zeinetatik azentuera modernoak deribatuko lirartekeen.

Alde batetik, hasperenaren distribuzioaren aldaketen berri ematen du, Done Miliagako Rejan agertzen den toponimian ikus daitekeen /h/-ren distribuzioa konparatiboki eredu zaharrenean kokatzen baitu, ekialdeko euskalkietako hasperenaren distribuzio modernoagoa eredu berritzaile bati egozten dion bitartean. Halaber, goi-nafarreraren parte den Goizuetako hizkerak gordetzen duen doinu azentuak, erdialdeko zenbait hizkerek erakusten duten hitz markatuen taldearen hedadurarekin batera, Bizkaiko iparraldeko azentueraren zahartasun erlatibo eta hedaduraren alde egiten dutela argudiatu da. Ekialdeko azentu ereduak azentuera markatuden hitzen talde berriago bat duela argudiatu da, prozesu fonologiko gardenak jasan dituzten hitzek osatzen dutena, eta beste ereduetan azentuera markatua duten erroak eta atzizkiak hitz ez-markatuen taldean integraturik dituela. Honenbestez, proposatutako kronologiak azentuera eredu nagusien artean berrikuntzak ekialdera doazela erakusten du.

## 6. Bibliografia

- Aznar Martínez, E., 2009, *Principales topónimos euskéricos de La Rioja* [Sarean: [http://www.eriioxa.com/7\\_toponimia\\_rioja/toponima\\_rioja.htm](http://www.eriioxa.com/7_toponimia_rioja/toponima_rioja.htm)].
- Beckman, M., 1986, *Stress and non-stress accent*, Foris, Dordrecht.
- Blevins, J. & A. Garrett, 1998, “The origins of consonant-vowel metathesis”, *Language* 74, 508-556.
- , 2004, “The evolution of metathesis”, in B. Hayes, R. Kirchner & D. Steriade (arg.), *Phonetically Based Phonology*, Cambridge University Press, Cambridge, 117-156.
- Donegan, P. & D. Stampe, 1983, “Rhythm and the holistic organization of language structure”, in Richardson, J. *et alii* (arg.), *Papers from the Parasession of phonology, morphology and syntax*, *Chicago Linguistics Society*, 337-353.
- Egurtzegi, A., 2011, “Euskal metatesiak: abiaburua haien ikerketarako”, *ASJU* 45:1, 79.
- , 2013a, “Phonetics and Phonology”, in M. Martínez (arg.), *Basque and Proto-Basque* [*Mikroglottika* 5], Peter Lang, Frankfurt am Main, 119-172.

- , 2013b, “Diferentes tipos de aspiración en vasco (con análisis espectrales del dialecto suletino actual)”, in E. Blasco, P. Francalacci, A. Nocentini & G. Tanda (arg.), *Iberia e Sardegna. Legami linguistici, archeologici e genetici dal Mesolitico all’Età del Bronzo*, Le Monnier Università, Firenze, 151-169.
- Elordieta, G., 1997, “Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque”, in F. Martínez-Gil & A. Morales-Front (arg.), *Issues in the phonology and morphology of the major Iberian languages*, Georgetown University Press, Washington DC, 4-78.
- , 1998, “Intonation in a pitch-accent variety of Basque”, *ASJU* 32:2, 511-569.
- , 2003, “Intonation”, in J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin, 72-112.
- , 2007a, “A constraint-based analysis of the intonational realization of focus in Northern Bizkaian Basque”, in T. Riad & C. Gussenhoven (arg.), *Tones and tunes: Volume I, Typological studies in word and sentence prosody*, Mouton de Gruyter, Berlin, 201-234.
- , 2007b, “Constraints on intonational prominence of focalized constituents”, in Ch. Lee, M. Gordon & D. Büring (arg.), *Topic and focus: Cross-linguistic perspectives on meaning and intonation*, Springer, Dordrecht, 1-22.
- , 2007c, “Minimum size constraints on Intermediate Phrases”, in J. Trouvain & W.J. Barry (arg.), *Proceedings of the XVI International Congress of Phonetic Sciences*, Universität Saarland (Alemania), 1021-1024.
- , 2011, “Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak”, *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 989-1014.
- , agertzeke, “Intonation in Basque”, in S.A. Jun (arg.), *Prosodic typology II*, Oxford University Press, Oxford.
- & J.I. Hualde, 2003, “Experimental test of a hypothesized diachronic change in Basque accentuation”, in M.J. Solé, D. Recasens & J. Romero (arg.), *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences*, Causal Productions Pty Ltd., Barcelona, 67-70. Berrarg. in Lakarra & Hualde (arg.), 293-301.
- Echenique, M.T., 1988, “Stress and pitch; Luis Mitxelena zenak utzitako langaia”, *Euskera* 23:2, 495-521.
- Fernández, B. & I. Laka (arg.), 2006, *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbo.
- Gaminde, I., 1995, *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- , 1998a, *Euskaldunen azentuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- , 1998b, “Bilbo eta euskara 700 urte geroago”, in F. Rodríguez Bornaetxea & I. Esnaola Arbiza (arg.), *Euskara mintzatuaeren erronkak*, UPV/EHU, Bilbo, 103-115.
- & J.I. Hualde, 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* 29:1, 175-197.
- Gussenhoven, C., 2004, “Northern Bizkaian Basque”, in C. Gussenhoven, *The Phonology of Tone and Intonation*, Cambridge University Press, Cambridge, 170-184.
- Hualde, J.I., 1989, “Acentos vizcaínos”, *ASJU* 23:1, 275-325.
- , 1991, “Manuel de Larramendi y el acento vasco”, *ASJU* 25:3, 737-749.
- , 1993, “On the historical origin of Basque accentuation”, *Diachronica* 10, 13-50.

- , 1995, “Reconstructing the ancient Basque accentual system: Evidence and hypotheses”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 171-188.
- , 1997a, *Euskararen azentuakerak*, *ASJU*ren Gehigarriak 42, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia-Bilbo.
- , 1997b, “Aitzineuskararen leherkariak”, *ASJU* 31:2, 411-424.
- , 1999, “Basque accentuation”, in H. van der Hulst (arg.), *Word prosodic systems in the languages of Europe*, Mouton de Gruyter, Berlin, 947-993.
- , 2000, “On system-driven sound change: Accent shift in Markina Basque”, *Lingua* 110, 99-129.
- , 2003, “From phrase-final to post-initial accent in Western Basque”, in P. Fikkert & H. Jacobs (arg.), *Development in prosodic systems*, Mouton de Gruyter, Berlin, 249-281.
- , 2006a, “Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca”, *Oihenart* 21, 149-177.
- , 2006b, “Laringalak eta euskal azentuaren bilakaera”, in Fernández & Laka (arg.), 497-511.
- , 2007, “Historical convergence and divergence in Basque accentuation”, in C. Gussenhoven & T. Riad (arg.), *Tones and tunes*, Mouton de Gruyter, Berlin, 291-322.
- , 2012, “Two Basque accentual systems and the notion of pitch-accent language”, *Lingua* 122, 1335-1351.
- , G. Elordieta & A. Elordieta, 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, *ASJU*ren Gehigarriak 34, Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Bilbo-Donostia.
- , G. Elordieta, I. Gaminde & R. Smiljanic, 2002, “From pitch-accent to stress-accent in Basque”, in C. Gussenhoven & N. Warner (arg.), *Laboratory Phonology VII*, Mouton de Gruyter, Berlin, 547-584.
- , J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), 1995, *Towards a history of the Basque language*, John Benjamins, Amsterdam.
- & O. Lujanbio, 2008, “Goizuetako azentuera”, in X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, *ASJU*ren Gehigarriak 51, UPV/EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia, 377-394.
- , O. Lujanbio & R. Torreira, 2008, “Lexical tone and stress in Goizueta Basque”, *JIPA* 38, 1-24.
- Hyman, L.M., 1976, “Phonologization”, in A. Juilland (arg.), *Linguistic studies presented to Joseph H. Greenberg*, Saratoga, 407-418.
- , 1977, “On the nature of linguistic stress”, in L.M. Hyman (arg.), *Studies in stress and accent*, Southern California Occasional Papers in Linguistics, Los Angeles, 37-82.
- Igartua, I., 2001, “La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico”, *ASJU* 35:1, 185-213.
- , 2006, “Del origen de la aspiración como elemento morfofonológico en vasco”, in Lakarra & Hualde (arg.), 519-530.
- Irurtzun, A., 2003, “Stress on Accent: Erretereria Basque Revisited”, in M.J. Solé, D. Recasens & J. Romero (arg.), *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences*, 2075-2078.
- Jauregi, O., 2007, *Euskararen silaba: Egitura eta historia*, doktorego tesia, UPV/EHU.



- Jun, S.A. & G. Elordieta, 1997, "Intonational structure of Lekeitio Basque", in A. Botinis, G. Kouroupetroglou & G. Carayiannis (arg.), *Intonation: Theory, Model and Applications*, ESCA, Athens, 193-196.
- Kaji, S., 1996, "Tone reversal in Tembo (Bantu J.57)", *Journal of African Languages and Linguistics* 17, 1-26.
- Kubozono, H., 1993, *The organization of Japanese prosody*, Kurosio Publishers, Tokyo.
- Ladefoged, P., I. Maddieson & M.T.T. Jackson, 1988, "Investigating phonation types in different languages", in O. Fujimura (arg.), *Vocal physiology: Voice production, mechanisms and functions*, Raven, New York, 297-317.
- Lakarra, J.A., 1995, "Reconstructing the Pre-Proto-Basque root", in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- , 2005, "Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco", *Palæohispanica* 5, 407-470.
- , 2006, "Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica", *Oihenart* 21, 229-322.
- , 2009, " $*h_3 > h_1$ ,  $*h_2 > h_1$  eta horiei datzekien zenbait fenomeno", *Lapurdum* 13, 211-231.
- & J.I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask*. ASJU 40:1/2.
- & I. Ruiz Arzalluz (arg.), 2011-2012, *Luis Michelena. Obras completas*, ASJU-ren Gehigarriak, 15 lib. GFA-UPV/EHU, Donostia-Gasteiz.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villagordo Alcaraz, Salamanca.
- Lehiste, I., 1970, *Suprasegmentals*, MIT Press, Cambridge (Massachusetts).
- Martinet, A., 1955, *Économie des changements phonétiques*, A. Franck, Berna.
- , 1981, "La phonologie synchronique et diachronique du basque", in *Iker* 1: *Euskalariari nazioarteko jardunaldiak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 59-74.
- Martínez-Areta, M., 2004, "El acento proto-vasco", *ASJU* 38:1, 135-206.
- Miller, B., 2012, *Feature patterns: Their sources and status in grammar and reconstruction*, doktorego tesia, Cambridgeko Unibertsitatea.
- Mitxelena, K., 1951, "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas", *BAP* 7, 539-549. Berrarg. in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), VII, 21-32.
- , 1958, "A propos de l'accent basque", *Bulletin de la Société de Linguistique* 53, 204-220. Berrarg. in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), VII, 123-152.
- , 1972, "A note on Old Labourdin accentuation", *ASJU* 6, 110-120. Berrarg. *Palabras y textos*, 235-244.
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia.
- , 1981, "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* 15, 291-313. Berrarg. *Palabras y textos*, 35-55.
- , 1987, *Palabras y textos*, J. Gorrochategui (arg.), UPV/EHU, Gasteiz.
- Nash, J.A., 1992, "Underlying low tones in Ruwund", *Studies in African Linguistics* 23, 223-278.
- Ohala, J.J., 1981, "The listener as a source of sound change", in C. Masek, R.A. Hendrick & M.F. Miller (arg.), *Papers from the Parasession on Language and Behavior*, Chicago: Chicago Linguistic Society, 178-203.

- , 1993, “The phonetics of sound change”, in C. Jones (arg.), *Historical Linguistics: Problems and Perspectives*, Longman, Londres, 237-278.
- Pierrehumbert, J. & M. Beckman, 1988, *Japanese tone structure*, MIT Press, Cambridge (Massachusetts).
- Selkirk, E. & G. Elordieta, 2010, “The role of prosodic markedness constraints in phonological phrase formation in two pitch accent languages”, *Tone and Intonation in Europe 4*. kongresuan aurkeztutako txostena, Estokolmo.
- Ultan, R., 1978, *A typological view of metathesis*, in J. Greenberg (arg.), *Universals of human language*, 2. alea, Stanford University Press, Stanford, 368-399.

## Aurkibidea / Índice / Table of contents

Hitzaurrea / Prólogo / Preface . . . . .	XVII
--	------

### TXOSTENAK ETA KOMUNIKAZIOAK / PONENCIAS Y COMUNICACIONES / INVITED PAPERS AND COMMUNICATIONS

El topónimo <i>Treviño</i> y la prevalencia de errores de historiografía lingüística <i>The place name Treviño and the prevalence of errors in linguistic historiography</i> JOSEBA ABAITUA ODRIUZOLA (Universidad de Deusto) & MIKEL UNZUETA PORTILLA (Diputación Foral de Bizkaia) . . . . .	3
Kolokazioak: <i>OEH</i> eta egungo erabilera <i>Collocations: The OEH and contemporary use</i> XABIER ALTZIBAR & JUAN CARLOS ODRIUZOLA (UPV/EHU) . . . . .	23
Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar <i>Some observations on the origin and composition of conjugated verbs in Basque</i> BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ (UPV/EHU) . . . . .	41
Txistukarien neutralizazioa mendebaldeko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean (lehen hurbilketa) <i>Sibilant neutralisation in Western Basque between the 16th and 18th centuries (an initial approach)</i> UDANE ATUTXA (UPV/EHU) . . . . .	61
Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia <i>On the history of Basque dialects: Labourdin and High Navarrese</i> IÑAKI CAMINO (UPV/EHU) . . . . .	77

Aparición y evolución de esquemas de valencia no canónicos y ergatividad <i>The appearance and evolution of non-canonical valency pattern systems and ergativity</i> DENIS CREISSELS (Universidad de Lyon II) . . . . .	141
Euskal azentueren historiaz <i>On the history of the Basque accentual systems</i> ANDER EGURTZEGI & GORKA ELORDIETA (UPV/EHU) . . . . .	163
Basque spatial cases and the ergative-absolutive syncretism RICARDO ETXEPARE (IKER-UMR5478, CNRS) . . . . .	187
Las reglas del juego. Notas para una noción de ley morfológica <i>The rules of the game: Notes for a notion of morphological law</i> CARLOS GARCÍA CASTILLERO (UPV/EHU) . . . . .	213
Instrumentalaz gogoratzu, instrumentuaz haratago. Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea <i>Recalling the instrumental, beyond the instrument: The nature of the case in typology and the evolution of Basque</i> IVÁN IGARTUA (UPV/EHU) & EKAITZ SANTAZILIA (UPNA/NUP & UPV/EHU) . . . . .	227
Hasperenaren galera Iparraldeko euskarari <i>The loss of aspiration in Northern Basque</i> OROITZ JAUREGI (UPV/EHU) & IRANTZU EPELDE (IKER-UMR5478) . . . . .	245
Euskarazko egitura erresultatiboan diakronia <i>The diachrony of Basque resultative constructions</i> DOROTA KRAJEWSKA (UPV/EHU) . . . . .	263
Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa <i>Towards a more profound reconstruction of prehistoric Basque: Canonical form, holistic typology, chronology and grammaticalisation</i> JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU) . . . . .	275
<i>Le Dauphin</i> itsasontziko euskarazko gutunak (1757): lehen hurbilketa <i>The letters in Basque from the ship Le Dauphin (1757): An initial approach</i> XABIER LAMIKIZ (UPV/EHU), MANUEL PADILLA (UPV/EHU & IKER-UMR 5478) & XARLES VIDEGAIN (UPPA & IKER-UMR5478) . . . . .	325
Euskaldunen jatorria eta berezitasun genetikoaren eztabaidan <i>The debate on Basque origins and genetic singularity</i> SAIOA LÓPEZ, NESKUTS IZAGIRRE & SANTOS ALONSO (UPV/EHU) . . . . .	343
Ergatibitate hautsiaz. Zergatik ote da orainaldia iraganaldi/irrealisa baino ergatiboagoa? <i>Split ergativity: Why is the present more ergative than the past/irrealis?</i> MIKEL MARTÍNEZ ARETA (UPV/EHU) . . . . .	353

Ohar bat [partizipioa + joan/eraman, eroan] perifrasiaren diakroniari buruz <i>A note on the diachrony of the periphrasis [participle + joan 'go' / eraman, eroan 'bring']</i> CÉLINE MOUNOLE (UPV/EHU) . . . . .	369
(Des)genitibizazioaren historiaz gehiago: genitibozko subjektu iragangaitzak (ISGEN) ekialdeko euskaran <i>More on the history of (de)genitivization: Intransitive subjects genitive (ISGEN) in Eastern Basque</i> MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU & IKER-UMR5478) . . . . .	383
Basque in the Becerro. Basque names and language in the <i>Becerro Galicano</i> of San Millán DAVID PETERSON (UPV/EHU) . . . . .	405
Euskararen dialektalizazioaren hastapenatarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan <i>Towards the beginnings of Basque dialectization: The process of convergence and divergence in the Middle Ages</i> URTZI REGUERO UGARTE (UPV/EHU) . . . . .	431
Uribeko Corpus Onomastikoa (UCO) <i>The Onomastic Corpus of Uribe (UCO)</i> ANDER ROS CUBAS (Barakaldoko HEO) . . . . .	445
<i>Aspectos del desarrollo de la lingüística histórica en los siglos XIX y XX</i> <i>Aspects of the development of historical linguistics in the 19th and 20th centuries</i> PIERRE SWIGGERS (Universidad de Lovaina) . . . . .	467
Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara <i>Situating texts in historical dialectology: From acts to methodology</i> KOLDO ULIBARRI ORUETA (UPV/EHU) . . . . .	511
Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago? <i>Basque Philology: What do(n't) we know twenty-five years later on?</i> BLANCA URGELL (UPV/EHU) . . . . .	533
Vasco y gascón en el <i>Thesaurus Polyglottus</i> (1603) de Megiser <i>Basque and Gascon in the Thesaurus Polyglottus (1603) by Megiser</i> JOSU M. ZULAICA HERNÁNDEZ (Eusko Ikaskuntza) . . . . .	571
Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta <i>Viva Jesús</i> testuaren jatorriaz <i>Notes on the old Basque of the Nervion Estuary and the origins of the Viva Jesús text</i> ENEKO ZULOAGA (UPV/EHU) . . . . .	593

KOLDO MITXELENAREN OBRA 25 URTE GEROAGO /  
 LA OBRA DE LUIS MICHELENA 25 AÑOS DESPUÉS /  
 KOLDO MITXELENA'S WORK 25 YEARS LATER

<i>Sobre Lenguas y Protolenguas</i> <i>About Lenguas y Protolenguas</i>	
JOAQUÍN GORROCHATEGUI (UPV/EHU) . . . . .	613
<i>La lingüística ibérica antes y después de Luis Michelena</i> <i>Iberian linguistics before and after Luis Michelena</i>	
JAVIER DE HOZ (Universidad Complutense) . . . . .	643
<i>Apellidos Vascos eta Mitxelenaren onomastika lanak</i> <i>Apellidos Vascos and Mitxelena's onomastic work</i>	
PATXI SALABERRI ZARATIEGI (UPNA/NUP & Euskaltzaindia) . . . . .	673
<i>Fonética histórica vasca, hitz eraketaren morfonología eta neutralizazio erraldoiak</i> <i>Fonética histórica vasca, word formation morphonology and massive neutralization</i>	
MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU) . . . . .	699
<i>Textos Arcaicos Vascos 50 urte geroago</i> <i>Textos Arcaicos Vascos fifty years later</i>	
GIDOR BILBAO (UPV/EHU) . . . . .	717
<i>Euskal literaturaren historiaz Koldo Mitxelenak finkatu zuen eredu historiografikoa</i> <i>The historiographic model established by Koldo Mitxelena on a history of Basque literature</i>	
JON CASENAVE (Université de Bordeaux 3 & IKER-UMR5478) . . . . .	729
<i>Koldo Mitxelena, crítico de cine en euskera durante el franquismo</i> <i>Koldo Mitxelena, film critic in Basque language during the Franco years</i>	
JOXEAN FERNÁNDEZ (Euskadiko Filmategia & Université de Nantes) . . . . .	743
<i>English Abstracts of the Articles</i> . . . . .	755